Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

irun
Alkate-udalburuak onetsia 2022(e)ko uztail aren 7(e)ko 822 zenbakiko ebazpenaren bidez.
Aprobado por la Alcaldía Presidencia por resolución Nº 822 de Fecha 7/7/2022
Irun, 7/7/2022
Idazkaria / La Secretaria

IRUNGOUDALTZAINGOARENTZAKO ATESTATU FURGONETA BAT HORNITZEKO KONTRATAZIOA
– BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA –

ARLO SUSTATZAILEA	EROSKETA ETA EKIPAMENDUAK
ESPEDIENTE KODEA	2022ZAUN0041

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratazioaren xedea Irungo Udaltzaingoarentzako egungo atestatu furgonetaren ordezko furgoi motako ibilgailu eraldatu bat eskuratzea da.

2. KONTRATUAREN NORAINOKOA

Ibilgailua atestatu furgoi gisa erabiliko da ohikoan, bulego mugikorretarako, eta Irungo udal barrutian ibiliko da ohikoan, baina baliteke noizean behin Donostia aldean eta Bidaso aldean ibiltzea.

3. FURGONETAK IZAN BEHARREKO GUTXIENEKO EZAUGARRIAK

Hona hemen hornitzen den ibilgailuak izan beharreko gutxieneko ezaugarri teknikoak:

3.1. TEKNOLOGIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 21. artikuluaren arabera, "2020tik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek erosten dituzten ibilgailu guztiek (% 100) ordezko erregaiak erabili beharko dituzte". Horrela, baldintza hori betetzen duen furgoneta motako ibilgailu bat hornitu beharko da.

Baldintza hori kontuan izanik, eta kontuan izanik zertarako erabiliko den hornitu beharreko atestatu furgoneta, eskaintzen den ibilgailuak polizia lanetarako motorizazio egokia izan beharko du: motor hibrido entxufagarria edo % 100 elektrikoa.

3.2. IBILGAILUAREN GUTXIENEKO EZAUGARRIAK

Enpresa lizitatzaileek aurkezten dituzten eskaintzek gutxieneko eskakizun eta ezaugarri hauek errespetatu beharko dituzte:

- Furgoneta motako ibilgailua
- 4.900 mm-tik 5.300 mm-ra bitarteko luzera
- 1.890 mm-tik 2.050 mm-ra bitarteko garaiera
- Goratzen ez den sabai normala
- Orri erako aurreko ateak
- Euro 6 Europako araua betetzea, ihes hodiaren emisioei buruzkoa
- 100 ZP-ko gutxieneko potentzia

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

- Albotik atzeko tokietara sartzeko ate lerragarria izatea eta ateak panelak eta kristal tindatuak izatea
- Ate lerragarriaren kontrako aldeko leihoek kristalak izatea eta tindatuta egotea
- Atzealdean ahal dela ate handi bat izatea, edo, bestela, orri erako bi ate
- Bi-hiru toki izatea, bi aurrean eta bat atzean, eta atzekoan bulego aulki bat edo antzeko zerbait instalatzea, behar bezala ainguratuta, errail baten edo antzeko zerbaiten gainean, pertsona bakoitzaren altuerara egokitze aldera posizio batean baino gehiagotan jartzeko moduan
- Direkzio lagundua
- Aleaziozko hagunak
- Aurreko transmisioa
- Aurreko eta atzeko disko balaztak, ABS sistemadunak
- Beira jasogailu elektrikoa
- Klimatizagailua
- Esku libreko Bluetooth sistema
- Korronte alternoko 220 V-eko lau elikatze hargune instalatzea gutxienez, eta korronte zuzeneko 12 V-eko bi; bat, etilometroarentzat
- Bateria deskonektagailu mekanikoa
- Tapizeria iluneko eserlekuak, borra eta pistolen urradura eta igurtziari aurre egiteko alboetan indartutakoak
- Kanpoko atzerako ispilu bikoitza bi aldeetan
- Altzairuzko karter babesgarri edo estalgarria
- Aurreko eserleku ergonomikoak, gerrialdeak atseden hartzeko sistemadunak
- Polizia lanetarako hornidurarako instalazio elektrikoa zuzkitzeko bateria gehigarria
- Aparkatzeko aurreko eta atzeko sentsoreak –baloratu egingo da–
- Argiak automatikoki pizteko sentsorea
- Euri sentsorea –baloratu egingo da–
- Aurreko xenon, bixenon edo led argiak


Eranskinak badakartza furgonetaren ezaugarriak, Excel fitxategi batean, enpresa lizitatzaileek eskaintzen dituzten furgoneten ezaugarriak adierazteko.

4. ANTOLAMENDUA, EKIPAMENDUA ETA ERALDAKETAREN EZAUGARRIAK

Kontuan izanik atestatu furgonetatarako erabiliko dela nagusiki, hornitzen den ibilgailua horretarako moduan eraldatu beharko da. Eskaintzak diseinua eta eraikuntza materialak adierazi beharko ditu. Behin kontratua esleituta, ibilgailua eraldatu aurretik, eskaintzen diren antolamendua eta materialak zuinkatuko dira; horretarako, aurrez, diseinua eta espazio, material, babesgarri eta kable guztien antolamendua aurkeztu beharko dira, eta, behin betiko diseinua fabrikatu aurretik, udal teknikariek oniritzia eman beharko dute.
Helburua da furgoneta motako ibilgailu bat edukitzea, erabilera mistoaren berezko eskakizunetara egokitutakoa eta funtzionaltasunaren aldetik ekipo eta elementu osagarriak instalatzeko funtsezko hiru ataletan banatutakoa:

- Gidatzeko partea (A)
- Lan egiteko partea (B)
- Materiala eta jendea kokatzeko partea (C)

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN



4.1. GIDATZEKO PARTEA (A)

Gidatzeko parteak bi edo hiru tokiko edukiera izan beharko du, eta ibilgailu komertzialaren ezaugarrietan oinarritu beharko du. Tetra igorgailua instalatzeko prestatuta egon beharko du –Irungo Udalak hornituko du ekipoa–, eta igorgailua behar bezala instalatzeko beharrezkoak diren euskailu, kable eta konektoreak izan beharko ditu.

4.2. BULEGOTARAKO ETA TRAFIKOKO POLIZIA LANETARAKO HORNIDURARENTZAKO PARTEA (B eta C)

Bulegotarako erabiltzekoa den partea atzealdean kokatuko da, gidatzeko partearen atzean.

Altzarien antolamenduari buruzko eranskinak badakar bulegoaren antolamenduaren oinplanoa. Haren arabera, agentearen tokia furgonetaren erdialdeko hutsunean kokatuko da, eta agenteak handik tratatuko ditu herritarrak. Horretarako, luzetara mugitu ahalko da, agenteen mugimendu beharretara eta fisiologiara egokitutako errail sistema baten bidez, mahaira gerturatu eta mahaitik urrutiratzeko. Aurrera begira zein atzera begira jarri ahalko da eserlekua, eta birakaria izatea eta egiten duen biraren barruan posizio batean baino gehiagotan blokeatu ahal izatea baloratuko da.

Erdialdean bertan egongo d(ir)a albo(eta)ko ate lerragarria(k), eta, marko(et)an, albo(et)an, 50 bat zentimetroko heldulekua(k) jarriko d(ir)a, erabiltzaileei ibilgailura sartzen laguntzeko.

Herritarrak atzeko ate(eta)tik sartuko dira, eta banku jarraitu batean edo antzeko tokiren batean eseriko dira, furgonetaren ezkerraldean. Eserleku horren azpiko hutsunea aprobetxatu, eta, gurpil etxearen bi aldeetan, horniduraren parte bat kokatuko da. Sarbidea hobetzeko, eskailera maila elektriko barneragarri bat jarriko da, kolpe leungailuaren inguruan edo ibilgailuaren azpian. Era berean, 50 bat zentimetro luze diren heldulekuak jarriko dira alboetan, erabiltzaileei sartzen laguntzeko; adibidez, alboko altzarian bata eta markoan bestea. Bulegora albotik sartzeko eskailera maila moduko erlaitz bat izatea baloratuko da –atzealdean jartzea ere baloratuko da–, lagungarria bailitzateke erabiltzaileentzat. Ibilgailuaren araberakoa izango da antolamendua.

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

Herritarrak tratatzeko eserleku jarraituaren parean, altzari bat jarriko da, hornidurarен barruko elementurik handienak sartzeko, hala nola baliza dizdizariak, neurtzeko gurpila, ahuntz hanka, seinaleztapen konoak eta gutxienez hiru seinaleztapen tetraedroren bastidore metalikoentzako tiradera bat, eta tiradera ixteko sistema kabila bidezkoa izango da, seinaleen pisuaren inertziari eusteko. Bulego mahaiaren arras geratuko da altzaria, eta, gainean, eskuak garbitu edo lehortzeko paper euskarri bat jarriko da.

Bulego mahaia zirkulazioaren norabidearekiko perpendikularrean jarriko da, eta hornidura gordetzeko atzeko eta alboko altzariaren horma atalean muntatuko da, dokumentu honen eranskineko plano eta argazkiekin bat etorriz. Mahaian, artxibo altzari-tiraderadun bat jarriko da, dokumentazioa eta bulegoko materiala txukun gordetzeko, eta, haren gainean, mahai gainean, alkoholimetroa, ordenagailua, hatz markak irakurtzeko sistema, inprimagailua... kokatzeko gune bat.

Bestalde, apal barneragarri bat jarriko da, ordenagailuaren teklatua kokatzeko, eta, mahaian, korronte alternoko 220 V-eko lau elikatze hargune eta korronte zuzeneko 12 V-eko bi instalatuko dira. Ibilgailuak zerbaiten kontra talka egingo balu ere, mahai gaineko elementu hauek seguru finkatzeko sistemak (zingilak, kaxa metalikoak, pletinak...) baliatu beharko dira: ordenagailuaren pantaila, etilometroa, inprimagailua eta teklatua. Hutsuneak aprobetxatuz, bulego mahaiaren osagarri, ahokoak eta paperak biltzeko bat instalatuko da, bi erregistrokoa: tapaduna bata, ahoko eta paperak botatzeko, eta ahokoak jasotzeko poltsa ateratzeko bestea.

Planoaren arabera, erdialdeko ezkerreko alboan egongo da arasa, bulego mahaiaren arras, haren osagarri, beharrezkoa bada etilometroa edo inprimagailua jartzeko, eta, bertan, batetik, karga kontrola elektronikoki kudeatzeko elementu guztiak, behe tentsioko korronte lineen babesgarriak eta ibilgailuak polizia lanetarako dakartzan serieko instalazioen osagarriak jarriko dira, baita korronte zuzena alterno bihurtzeko transformadorea ere, zeinak bateria kargagailua ere izan beharko duen.

Bestetik, sei tiradera eta bi apal izango ditu arasak, materiala txukun gordetzeko, eta apalek lau-sei tetraedroren eta berauen bastidoreen pisuari eusteko behar bezain erresistenteak izan beharko dute. Arasari atxikita, lurrean finko, oinarri gidari bat jarriko da, seinaleztapen konoak kokatzeko, eta, ibilgailuak zerbaiten kontra talka egingo balu ere, kono zutabeari eusteko sistema mekanikoren bat baliatuko da, hala nola zutabe erako armairu bat.

Seinaleak sartzen diren gunean, euskarri garden batzuk jarriko dira, barruan paperezko idazpuru aldagarriak jarri eta, horrela, kaxa bakoitzaren barruan zer seinale mota dagoen jakin ahal izateko. Ibilgailuaren aurrealderantz okertuta muntatuko dira kaxak, eta, hondoan, jariakinak husteko irteera bat izango dute; gero, kanporantz bideratuko dira jariakinak, ibilgailuaren lurreko hustubide baten bitartez. Kaxen materiala erresistentea izango da, eta plastikozkoa edo antzeko materialen batekoa izango da, korrosiorik ez izateko.

Furgonetaren alboetan (hau da, mahaiaren eta arasen gaineko paretetan), dokumentuentzako sei erretilu garden bertikal jarriko dira, paneletan seguru finkatuta, eta finkapena txapari atxikitako arrastelen bidez sendotuko da. Alboetako ateetako leihatilei dagokienez, barne pertsiana bana jarriko da, beharrezkoa denean diskrezioa bermatzeko, ateak irekitzen diren tartea ez trabatzeko moduan.

Furgonetaren erdialdeko sabaian, bi led barra edo antzeko argiztapen sistemak instalatuko dira, txostenak irakurri eta idazteko behar bezainbeste argitzen dutenak, bi lerro paralelotan, herritarrak sartzeko atzeko ate(eta)tik aurreko eserlekuen bizkarreraino, eta eskuinaldeko ate lerragarriaren eta atzeko ate(eta)ko sarreraren aldameneko kommutadore banaren bidez piztuko dira sabaiko lanpara horiek. Gainera, txostenak egiteko idazmahaian edo hari atxikita, beso luzeko led lanpara bat edo behar bezainbeste argitzen duen sistema bat instalatuko da.

Instalatzen diren altzari eta sistema guztiak ainguratu beharko dira, ibilgailuak zerbaiten kontra talka egingo balu ere finko geratzea bermatzeko, eta, horretarako, elementuok karrozeriako metalezko elementuetan finkatzeko sistemak erabiliko dira: altzairu herdoilgaitzezko torlojuak, azalean korrosioaren aurka tratatuak.

Hustubideak jarriko dira seinaleztapen konoentzako guneetan (hau da, atzeko eta alboko armairuan), tarteko armairuan eta erdialdeko arasako apalategian.

Bulegoan aulki motako kutxa bat jartzeko aukera izatea baloratuko da, abiadura murriztaileak gordetzeko ireki daitekeena. Bulegoko lurra garbitu daitekeen material batekoa izango da, baita atzealdekoa ere.

Ibilgailuko instalazio elektrikoa

Furgonetaren atzeko ate(et)an, goialdean, altzaria atzetik argitzeko moduan, lanpara fluoreszente bat edo antzeko zerbait instalatuko da, behar bezainbeste argitzen duena.

Korronte harguneei dagokienez, atzealdean, korronte zuzeneko 12 V-eko bost hargune instalatuko dira: bi, baliza dizdizarien kaxatik eta etilometroaren kokagunetik gertu; beste bi, atzealdean; eta bestea, bulegoan.

Altzarien antolamenduari buruzko eranskinak badakar bulegoa kokatzeko eta ekipamendua kokatzeko krokis orientagarri bat, eta, haren arabera, armairuan, aipatutako elementuez gain, hauen kokalekua hartu beharko da kontuan:

- Beste bateria bat gordetzeko tokia
- Instalatzen diren elementuen eta hornidura elementuen babesgarri elektrikoak sartzeko kaxa gordetzeko tokia
- 12 V-eko korronte zuzena 220 V-eko korronte alterno bihurtzeko beharrezkoak diren sistema elektrikoak gordetzeko tokia

Armairuan eta ibilgailuaren barrualdean kokatzen diren hornidura elementu guztiek beren euskailu propioa izan beharko dute, ibilgailua mugitzen denean edo talka egiten duenean finko gelditzen direla bermatzeko.

Hargune elektriko, eragingailu eta konektore guztiak eta instalatzen diren elementu guztiak behar bezala identifikatu beharko dira, eta zertarako erabiltzen diren adierazi beharko da.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARÍA AYUNTAMIENTO

5. BARRUALDEKO EKIPAMENDUA ETA EDUKIERA

Ohikoan atestatu furgonetan gorde beharko den ekipamendua bi motatakoa izan daiteke: batetik, eskaintzaileak eskaini beharko duena eta, bestetik, eskaintzen den eraldaketaren esparruan behar bezala ainguratu eta kokatzeko kontuan hartu beharko den baina Irungo Udalak jarriko duenez eskaintzaileak eskaini beharko ez duena.

Horrela, eskaintzaileak hornitu behar ez dituen baina behar bezala ainguratu eta kokatzeko kontuan hartu behar dituen ekipoei dagokienez, eskaintzen den ibilgailuak bulego mugikor bat muntatzeko tokia eta elementu hauek instalatzeko konpartimentuak izan beharko ditu:

- Desfibriladore eramangarria
- Hamar seinaleztapen kono edo antzekoak
- Plastikozko balizaje zinta (biribilkia)
- Tapaki isotermikoa
- Zizaila bat
- Palankatxo / ahuntz hanka bat
- Botika kutxa bat
- Neurtzeko gurpil tolesgarri bat
- Esku hartzeko bi kasko
- Gutxienez 5 W-eko eta 3.000 kandelako hiru led linterna kargagarri (12 V-eko karga azkarra) –1 m-ra neurtuko da argi intentsitatea–
- Sei trafiko seinale eta 92 cm-ko bastidoreak (jasotzen den seinalearen luzera)
- Doitasunezko alkoholimetroa
- Inprimagailua
- Erratza eta pala
- Eskuak garbitu edo lehortzeko papera

Gainera, enpresa eskaintzaileak ekipamendu hau instalatu eta hornitu beharko du:

- 6 kg-ko hautsezko su itzalgailu bat
- Beso luzeko led lanpara bat, aurrealdean, kopilotuaren lekuan
- Instalazio elektriko gehigarrietarako babesgarri elektrikoen kaxa



- Larrialdietako mailu bat, behar bezala ainguratuta, beirakiak puskatzeko, segurtasun uhalak mozteko hortzak dituena
- Dokumentuentzako sei erretilu bertikal, alboko panelean finkatuta
- Instalatzen diren elementuak behar bezala elikatzeko bateria gehigarri bat

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARÍA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

- Bateria kargen bereizgailu bat, errele konbinatzaile bat (bateria kargen akoplagailua/disjuntorea)
- Metakrilatozko holtz kengarriak, gidariaren eta lagunaren eserlekuen atzean, edo gidariaren eserlekuaren atzean bakarrik, karga eta kabina bereizteko –baloratu egingo da–
- Metakrilatozko edo antzeko materialen bateko holtz bat, bulegoaren eta erabiltzaileen artean, dokumentu eta frogak pasatzeko zirrikitu bat duena –baloratu egingo da–
- Hargune elektrikoak eta hornitu beharreko ekipamendurako beharrezkoa den potentzia duten bihurgailuak





Elementu horiek guztiak behar bezala finkatu eta ainguratu beharko dira, ibilgailua gidatu bitartean ez daitezen mugi, baita egokiro identifikatu ere.

Materialen ezaugarri teknikoak, iraunkortasuna eta kalitatea baloratuko dira, baita proposatzen diren antolamendu eta diseinua ere.

6. KANPOALDEKO EKIPAMENDUA: ARGI ZUBIA

6.1. IBILGAILUAREN SABAIA

Seinaleztapen zubi bat **(1)** instalatu beharko da, ibilgailuaren goialdean behar bezala integratzeko diseinu aerodinamikoduna. Maila bateko edo biko altuera izango du, eta 1.200 mm-ko luzera gehienez ere. Informazio panel bat izatea baloratuko da, eta konfigurazio hau izan beharko du:

Goiko maila

- Bozgorailu bat, zubian integratuta, gutxienez 100 W-eko potentzia (L/C) duena, erdialde eta aurrealdean
- 3 W-eko 20-22 ledeko modulu bat, urdina, 12-24 V-ekoa, zubiaren albo bakoitzerako, ibilgailuaren aurrealdetik, albotik eta atzealdetik ikusteko modukoa
- Aipatutako moduluetarako gurutzaldi argia –bereiz piztuko da, ibilgailuaren barruko kontrol aginteko botoi bereizi baten bidez–

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARÍA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

Beheko maila

Aurrealdea

- Bi (2) led foku zuri gutxienez, 6 ledekoa gutxienez bakoitza, argitasun handikoak eta eremu zabalekoak
- 2 led modulu gorri keinukari, 12-24 V-eko zentralitadunak, ibilgailuaren barruko kontrol aginte edo kontsolan larrialdietako argiak pizteko dagoen botoira konektatuta

Alboak

- Bi (2) led foku zuri, 6 ledekoa gutxienez bakoitza, argitasun handikoak eta eremu zabalekoak, bat mutur bakoitzean, aurrealdekoarekiko 90 º-ko angeluan

Atzealdea

- Zortzi (8) led moduluko potentzia handiko eta anbar koloreko direkzio barra bat, ibilgailuaren barruko kontrol aginte edo kontsolan kokatutako kontrolagailu bereiziduna, eta, goialde eta barrualdean, bi (2) led foku urdin



6.2. IBILGAILUAREN AURREALDEA

Barrualdean, aurreko panelaren gainean, erdialdean, bentosen bidez kristalera finkatuta, **LED FOKU BAT (1)** instalatu beharko da, larrialdietan argi zubia pizteko botoira konektatuta, txandaka urdinez eta gorriz argitzen dena.

Kanpoaldean, aireztapen saretaren mutur bakoitzean integratuta, LED argi trinkotuen bi (2) sistema instalatu beharko dira, txandaka urdinez argitzen direnak –ibilgailua aireztatzeko saretaren neurrien araberakoa izango da tamaina–.





IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

6.3. IBILGAILUAREN ALBOAK

Argi trinkotuen sistema bat instalatuko da, gutxienez sei (6) led urdinez osatutakoa, aurreko kolpe leungailuaren albo bakoitzean, erdi parean –ibilgailuaren modeloaren arabera erabakiko da kokalekua–.

Ibilgailuaren barruko kontrol kontsola edo aginteko botoiaren bidez piztuko dira sistema horiek; hau da, larrialdi botoia sakatzen bada, larrialdietako sistema piztuko da, eta, gurutzaldi botoia pizten bada, gurutzaldikoa.

7. KANPOALDEKO EKIPAMENDUA: ERROTULAZIOA

Hornitzen den furgoneta hamar urte baino gehiago irauten duten kalitate handiko eranskailuen bidez errotulatu beharko da kanpotik, indarreko araudiarekin bat etorriz.

Errotuluak jarri aurretik, esleipendunak diseinua aurkeztu beharko du, teknikariek behin betiko onar dezaten –jarraian datozenak gutxieneko ezaugarriak dira, eta eskaintzen den furgoneta modelora egokitu beharko dira–.

Baldin eta ibilgailuaren modelo edo markaren logotipo, ikur eta adierazgarriak patruila ibilgailuan errotuluak jarri behar diren lekuetan badaude, kentzeko eskatu ahalko du Irungo Udalak.

7.1. ALBOAK

Ibilgailuarenaren luzera bereko zerrenda **beltzak** jarriko dira; gainerako dimentsioak, berriz, eskaintzen den furgoneta motaren arabera zehaztuko dira, ahalik eta hobekien ikusi eta bereizteko eta gainerako elementuekin ahalik eta harmonia handiena izateko moduan [ikus Irungo Udaltzaingoaren egungo ibilgailuen irudiak].









IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

Irungo Udaltzaingoaren ohiko identifikagarriak jarri beharko dira; tartean, Udaltzaingoaren logotipoa, aurreko ateetan, bi alboetan, goiko marra etenen eta ateetako edergarrien artean, erdi-erdian.

Era berean, 70 mm lodi den luzetarako marra gorri islatzaile bat jarri beharko da, alboetako ateen behe-behetik albo osoa zeharkatzen duena.

Testua Arial Black letra tipoa edo antzekoren bat baliatuz idatzi beharko da, eta honako hauek aipatu beharko ditu:

- **POLIZIA**, kolore zuri islatzailez, 90 mm-ko altuera duela, atzeko ate(ar)en erdi-erdian, luzetarako lerro beltzean
- **A-12** (edo auto bakoitzari dagokiona –esleipenaren ondoren jakinaraziko da–), aurreko atearen eskuinalde eta behealdeko erpinean, marra gorri islatzailearen gainean, 90 mm-ko altuera duela, aurrealdeko bi hegaletan
- **C092**, atzealdeko bi hegaletan, 90 mm-ko altuera duela gehienez ere (egungo bera), telefonoaren piktograma gorriz eta testua beltzez idatzita

Aurreko ateen erdialdean, udalerriko armarria jarriko da, 110 mm-ko altuera duela, eta IRUN, kolore zuri islatzailez, 40 mm-ko altuera duela.

Aukeran, "elektrikoa" edo antzeko zerbait idatzi ahalko da, ibilgailua jasangarria dela adierazteko.

7.2. SABAIA

Ibilgailuaren izena idatziko da, Arial Black letra tipoa erabiliz, 270 mm-ko altuera duela, beltzez, argi zubiaren eta atzealdeko ate handiaren artean, erdi-erdian [ikus irudia].



IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

7.3. ATZEALDEA

Errotulazio egokia bermatzeko, ezingo da izan ibilgailuaren modeloa eta/edo motorizazioa adierazteko bereizgarri edo plakarik, eta, marka identifikatzeko plakak errotulazioa oztopatu edo eragozten badu, kendu egin beharko da, salbu eta funtzionalitate espezifikoren bat badu.

Honako hauek jarri beharko dira:

- Luzetarako lerro beltz bat, 70 mm-ko altuerakoa, hamar urte baino gehiago irauten duen kalitate handiko binilo autoitsasgarrizkoa, atzealdeko beirakiaren bukaeratik hasita
- Luzetarako lerro gorri islatzaile bat, hamar urte baino gehiago irauten duen binilo autoitsasgarrizkoa, 70 mm-ko altuerakoa, atzealdeko ate(ar)en zabalera osoan, behe-behean [ikus irudia]





Testua Arial Black letra tipoa edo antzekoren bat baliatuz idatzi beharko da, eta honako hauek aipatu beharko ditu:

- **UDALTZAINGOA**, hamar urte baino gehiago irauten duen binilo autoitsasgarria baliatuz, 40 mm-ko altuera duela, kolore zuri islatzailez, ibilgailuaren erdialdean, zerrenda beltzaren gainean
- **A-1** (edo auto bakoitzari dagokion zenbakia), ate(ar)en eskuinalde eta behealdeko erpinean, marra gorri islatzailearen gainean, 90 mm-ko altuera duela –lekurik badago jarriko da–
- **C092** , ate(ar)en ezkerralde eta behealdeko erpinean, marra gorri islatzailearen gainean, 90 mm-ko altuera duela, telefonoaren piktograma gorriz eta testua beltzez idatzita –lekurik badago jarriko da–

Ezkerraldean, udalerriko armarria (eranskailua) jarriko da, eta, eskuinaldean, ikurrina korporatiboa, 110 mm-ko altuera dutela [ikus irudia].

Errotuluak behar bezala jartzen direla bermatu beharko da, eta ibilgailuaren marka edo modeloaren bereizgarriek ez dituztela desitxuratzen.

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

7.4. AURREALDEA

Zerrenda beltz bat jarriko da, aurreko kapotean, baita irudi korporatiboa ere ("Udaltzaingoa" testua eta eguzki lorea), diseinua ibilgailuaren aurrealdeko konfiguraziora egokituta [ikus irudia].





8. HORNIKUNTZAREN BALDINTZAK

Ibilgailu berria hornitu eta Irunen entregatzeko eskaintzaren prezioak barnean hartuko ditu errotulazioa, eraldaketa, aipatutako ekipamendua eta aplikatu beharreko zergak (BEZa, beste zerga batzuk, etab.), baita beharrezkoak diren homologazio eta gastu guztiak ere. Bada, guztizko prezioa izango da eskaintzaren prezioari eskaintzaileak egoki deritzen deskontu komertzialak aplikatzearen emaitza. Gainera, ibilgailuaren eraldaketari buruz beharrezkoa den nolanahiko informazio oro ibilgailuaren fitxa teknikoan jaso beharko da, ibilgailuen azterketa teknikoari begira, eta beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Errotuluak behar bezala jarrita eta behar bezala matrikulatu eta homologatuta entregatu beharko da furgoneta; beharrezkoa bada, ibilgailuen azterketa teknikoa eginda; eta beharrezkoak diren zirkulazio baimenak eskuratuta.

9. BETE BEHARREKO ARAUDIA

Aplikatu beharreko arauen zehaztapenekin bat etorriz egingo dira lanak; zertarako erabiliko den hornitu beharreko ibilgailua, horri buruzko arau espezifikoak barne direla.

Betiere, esleipendunak izango du Europar Batasuneko eta Espainiako legediak ezartzen dituen eskakizunak betetzeko ardura.

Ayuntamiento Udala
Irun
www.irun.org

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA AYUNTAMIENTO SECRETARÍA IRUN

10. BERMEA

Eskaintzek adierazi beharko dute zer berme eskaintzen den. Kontrakorik adierazi ezean, joko da bermeak elementu guztiak hartzen dituela barnean; tartean, osagai mekanikoak, instalazio elektrikoa, karrozeria (txapa eta pintura) eta osagarriak. Materiala jaso eta **gutxienez bi urte** iraungo du bermealdiak, pieza akastunei zein beharrezkoa gertatzen den eskulanari dagokienez.

11. IBILGAILUA PROBATZEKO ESKAERA

Ibilgailuaren prestazioak egiaztatzeko eta, zertarako eskatzen duten ibilgailua udal zerbitzuek, horretarako egokia dela frogatzeko, antzeko ezaugarriak dituen ibilgailu bat probatzeko eskatu ahalko da eskaintza teknikoak baloratu bitartean. Horretarako, eskaintzaileak antzeko prestazioak dituen ibilgailu elektriko bat jarri beharko du Irungo Udalaren esku, Irundik 100 km-ra gehienez ere, berau probatzeko nahikoa den denboraldi labur batean.

Irunen, sinaduraren datan.


Erosketa eta Ekipamenduetako burua

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARÍA
AYUNTAMIENTO DE IRUN


I. ERANSKINA – PLANOAK ETA EZAUGARRI TEKNIKOAK

Udalak furgonetarako nahi duen antolamendua erakusteko eskema hauek orientagarri edo informatiboak baino ez dira, eta enpresa eskaintzaileei Irungo Udaltzaingoaren beharren berri ematea dute helburu. Horrela, aurkezten diren proposamenak ahal bezainbat egokitu beharko dira eskemek planteatzen duten antolamendura.

BULEGOAREN ETA HORNIDURA ARMAIRUAREN KOKALEKUAREN ALTXAERAK




BULEGOAREN ETA HORNIDURA ARMAIRUAREN KOKALEKUAREN OINPLANOA



Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
AYUNTAMIENTO DE IRUN
SECRETARIA


BULEGOAREN ETA HORNIDURA ARMAIRUAREN KOKALEKUAREN ATZETIKO ALTXAERA





IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN


Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org


BULEGOKO ALTZARIAK ANTOLATZEKO PROPOSAMENA
(FURGONETA MODELOAREN ARABERA ALDATU AHALKO DA)











Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

ANTOLAMENDUAREN ERREPORTAJE FOTOGRAFIKO ORIENTAGARRIA
(FURGONETA MODELOAREN ARABERA ALDATU AHALKO DA)












IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARÍA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

I. eranskina. Ezaugarri teknikoak

ZEHAZTAPENAK	ENPRESAK ESKAINTZEN DUEN EZAUGARRIA (dagokion zehaztapena betetzen den eta zer balio eskaintzen den)	FROGAGIRIA *adierazi eskaintzaren zer atal edo orrialdetan datorren
4.900 mm-tik 5.300 mm-ra bitarteko luzera		
1.890 mm-tik 2.050 mm-ra bitarteko garaiera		
Goratzen ez den sabai normala		
Orri erako aurreko ateak		
Euro 6 Europako araua betetzea, ihes hodiaren emisioei buruzkoa		
100 ZP-ko gutxieneko potentzia		
Albotik atzeko tokietara sartzeko ate lerragarria izatea eta ateak panelak eta kristal tindatuak izatea		
Ate lerragarriaren kontrako aldeko leihoek kristalak izatea eta tindatuta egotea		
Atzealdean ahal dela ate handi bat izatea, edo, bestela, orri erako bi ate		
Bi-hiru toki izatea, bi aurrean eta bat atzean, eta atzekoan bulego aulki bat instalatzea errail baten gainean		
Direkzio lagundua		
Aleaziozko hagunak		
Aurreko transmisioa		
Aurreko eta atzeko disko balaztak, ABS sistemadunak		
Beira jasogailu elektrikoa		
Klimatizagailua		
Esku libreko Bluetooth sistema		
Korronte alternoko 220 V-eko elikatze harguneen eta korronte zuzenekoen kopurua		
Bateria deskonektagailu mekanikoa		
Tapizeria iluneko eserlekuak, borra eta pistolen urradura eta igurtziari aurre egiteko alboetan indartutakoak		
Aurreko eserleku ergonomikoak, gerrialdeak atseden hartzeko sistemadunak		
Polizia lanetarako hornidurarako instalazio elektrikoa zuzkitzeko bateria gehigarria		
Aparkatzeko aurreko eta atzeko sentsoreak		
Argiak automatikoki pizteko sentsorea		
Euri sentsorea		
Aurreko xenon, bixenon edo led argiak		
HORNITZEN DEN EKIPAMENDUA ETA EZAUGARRIAK		
6 kg-ko hautsezko su itzalgailu bat		
Beso luzeko led lanpara bat, aurrealdean, kopilotuaren lekuan		
Babesgarri elektrikoak		
Dokumentuentzako sei erretilu bertikal, alboko panelean finkatuta		
100 Ah /12 V-eko bateria bat pilotuaren eserlekuaren atzeko holtzean		
Bateria kargen bereizgailu bat		
Metakrilatozko holtzak, gidariaren eta lagunaren eserlekuen atzean, karga eta kabina bereizteko		
Metakrilatozko edo antzeko materialen bateko holtz bat, bulegoaren eta erabiltzaileen artean		
Hargune elektrikoak eta bihurgailuak		
Argi zubia		

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

irun
Alkate-udalburuak onetsia 2022...(e)ko uztailaren ...7...(e)ko 822 zenbakiko ebazpenaren bidez.
Aprobado por la Alcaldía Presidencia por resolución Nº 822 de Fecha 7/7/2022
Irun, 7/7/2022
Idazkaria / La Secretaria

CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO DE UNA FURGONETA DE ATESTADOS PARA LA POLICÍA LOCAL DE IRUN

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	EROSKETA ETA EKIPAMENDUAK / COMPRAS Y EQUIPAMIENTOS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2022ZAUN0041

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente contrato es la adquisición de un vehículo tipo furgón-transformado en sustitución de la actual furgoneta de atestados, con destino a la Policía Local de Irun.

2. ALCANCE DEL CONTRATO

El uso habitual del vehículo es como furgón de atestados, funcionando como oficina móvil, siendo los recorridos habituales dentro del término municipal de Irun, pudiendo realizarse desplazamientos esporádicos por las comarcas de Donostialdea y Bidasoaldea.

3. CARACTERÍSTICAS MÍNIMAS SOLICITADAS DE LA FURGONETA

Se establecen a continuación las características técnicas mínimas aproximadas que debe cumplir el vehículo a suministrar.

3.1. TECNOLOGÍA

En cumplimiento de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca establece en el Art. 21, que establece la obligatoriedad de que el 100% de los vehículos adquiridos por las administraciones públicas vascas utilicen combustibles alternativos a partir del año 2020, se solicita un vehículo tipo furgoneta con una tecnología compatible con esta condición.

Teniendo en cuenta esta condición, así como el tipo de uso de la furgoneta de atestados a suministrar, el vehículo a ofertar debe disponer de una motorización que se adecue a las funciones policiales, pudiendo tratarse de un motor híbrido enchufable o 100 % eléctrico.

3.2. CARACTERÍSTICAS MÍNIMAS DEL VEHÍCULO:

Las ofertas presentadas por las empresas licitadoras deberán respetar las exigencias y características mínimas aproximadas recogidas a continuación:

- Vehículo tipo furgoneta.
- Longitud del vehículo entre 4900 y 5300mm.

- Altura del vehículo entre 1890 y 2050mm.
- Techo normal sin elevación.
- Puertas delanteras: Apertura en hoja.
- Cumplimiento de la norma europea Euro 6 en relación a las emisiones de escape.
- Potencia mínima de 100CV
- Puerta con acceso lateral a plazas traseras, puerta corredera, panelado y acristalado tintado.
- Ventana/s originales, en el lado contrario a puerta corredera, acristalada y tintada.
- Debe disponer de un portón trasero preferiblemente o en su defecto de 2 puertas con apertura de hoja.
- 2/3 plazas, dos delanteras y en la trasera se instalará una silla de trabajo de tipo oficina o similar, que deberá quedar correctamente anclada, permitiendo la ubicación en diferentes posiciones para adaptarse a personas de diversas alturas (podrá instalarse un carril o similar que permita diversas posiciones).
- Dirección asistida.
- Llantas de aleación.
- Transmisión delantera
